ZEGAMAKO UDALA

2024KO UZTAILAREN 18AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2024KO EKAINAREN 11KO BILKURAREN AKTA).

2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.

3.- TOBERA MUSIKA ESKOLA: 2023/2024 URTEKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

4.- 2025 URTEKO JAI EGUNA FINKATZEARI BURUZKO ERABAKIA BERRESTEA.

5.- 2024KO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO (%2KO ORDAINSARI-IGOERA) EUDEL-EN GOMENDIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

7.- GALDE ERANTZUNAK.

SINAd4408314-0fde-4ece-a845-84dec02256c2

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Iker Zubeldia Katarain jn. (EH Bildu).

ZINEGOTZIAK

Ainhoa Herrasti Areitio and. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
Nagore Arrieta Aranza and. (EH Bildu).
Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen).
Alina Dumitru and. (Zegama Lantzen).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Denis Pérez Apaolaza jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Lierni Asurabarrena Zipitria.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2024KO EKAINAREN 11KO BILKURAREN AKTA).

Aho batez onartzen da aurreko bilkuraren akta.

2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.

Alkatetza Ebazpen bidez onartutako eta 2024ko uztailaren 2ko Ogasun Batzordetik pasatako honako faktura zerrenden berri ematen da.

9 zenbakidun fakturen erlazioa (Ekaina); guztira 55.655,07 euro.
10 zenbakidun fakturen erlazioa (Ekaina-2); guztira 147.923,37 euro.

SINAd4408314-0fde-4ece-a845-84dec02256c2

3.- TOBERA MUSIKA ESKOLA: 2023/2024 URTEKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak adierazten du Tobera Musika Eskolatik, udal-finantzaketarako argibideak eta kalkuluen agiria aurkeztu zirela.

Adierazitako agirian jasotako argibideak eta zenbatekoak ikusirik.

Indarrean den erabakiaren arbera, ikasturte batean udalak eman beharreko diru-laguntza, iazko ikasturtean herri horretako ikasleak egindako matrikulen batez besteko kostuaren gainean kalkulatzen da. Horrenbestez, 2023/2024 ikasturtean udalek egingo duten ekarpena zehazteko, 2022/2023 ikasturteko balantzea erabiliko da, matrikulako batez besteko kostu orokorra kalkulatzeko, eta ikasturte horretako herrikako matrikulazio-datuekin biderkatuko da emaitza. Emaitza hau, 2016ko maiatzaren 10eko akordioan agertzen den ehunekoarekin (%22a Zegamaren kasuan) biderkatuta lortuko litzateke.

Zentzu horretan, Zegamako Udalari dagokion ekarpena, 24.563,00 eurokoa izango litzateke (2024ko aurrekontuaren kargura).

Adierazitako laguntza, 2022-2024 epealdirako dirulaguntzen Plan Estrategikoko 5. lerro estrategikoan (Kulturaren sustapena), jasota dago, eta Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorreko 14. artikuluak (emakida zuzeneko diru laguntzen tramitazioa) adierazitakoa betetzen da.

Horrenbestez, aurkeztutako agiriak aztertu eta eztabaidatu ondoren eta 2024ko uztailaren 2ko ogasun batzordean aldeko iritzia jaso ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Tobera Musika Eskolari, 2023/2024 ikasturteari dagokionez, 24.563,00 euroko ekarpena bideatzea onartzea.

Bigarrena.- Adierazitako gastua onartzea, 2024ko Aurrekontu Orokorraren 1.0000.481.01.326.00.2024 aurrekontu sailari egotziz.

Hirugarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

SINAd4408314-0fde-4ece-a845-84dec02256c2

4.- 2025 URTEKO JAI EGUNA FINKATZEARI BURUZKO ERABAKIA BERRESTEA.

Idazkariak, Alkateak, 2024ko ekainaren 20an emandako 28/0624 Ebazpenaren berri ematen du:

"Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegia onartzeko den 71/2023 Dekretuko, 2. atalak ezartzen duenaren arabera, 2025. urteko jaiegunen egutegia osatzeko, lan ondorioetarako tokian tokiko jaietako bi egun ere, jaiegun izango direla adierazten da. Bi egun horien zehazpena, Lan eta Enplegu Saileko lurralde ordezkariek egiten dute, Udal bakoitzak egiten dituen proposamen arabera.

Zentzu horretan, tokian tokiko jaieguna proposatzea irizten da.

Guzti hori kontuan hartuz, eta indarrean dagoen araudiak ematen dizkidan aginpideak erabiliz, honako hau erabakitzen dut:

Lehena.- Ordezkaritza horri, Udalerri honetako jaiegun bezala, 2025. urteko ekainaren 9a (Mendekoste Astelehena) proposatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau, Lan eta Enplegu Saileko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Udalbatzarrak egingo duen hurrengo bilkuran azaltzea bere berrespena eman dadin."

Ebazpena ikusirik, Udalbatzar-kideak, aho batez, erabakia berresten dute.

5.- 2024KO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO (%2KO ORDAINSARI-IGOERA) EUDEL-EN GOMENDIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

EUDEL-EK UDALHITZ hitzarmenaren negoziazio kolektiboari buruz, zirkularra bidali du, Udalei, zenbait neurri har ditzaten gomendatuz.

Zentzu horretan, honako gomendio hau egiten zaie EAEko udalei:

SINAd4408314-0fde-4ece-a845-84dec02256c2

" 2024.06.25ean, ministroen kontseiluaren erabakiz, ***ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua*** onartu zen, ***Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituena eta zerga, energia eta gizarte arloetan premiazko neurriak hartzen dituena***. (2024ko ekainaren 27ko BOE)

Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoerei dagokienez, aipatutako Errege Lege Dekretuak, 6. artikuluan (esteka), hau arautzen du:

"Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-neurriak

6. artikulua. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoera 2024. urterako.

1. ***2024. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ehuneko 2ko gehieneko igoera globala izan ahal izango dute, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, azken horietan barne hartuta 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinatasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.***

2. ***2. Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko da, hala badagokio, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPI harmonizatuaren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen badu. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPI harmonizatuaren datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da***

Aurrekoa ikusita, eta EUDELek aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsari-igoerei dagokienez egin izan duen bezala, ordainsarien arloan egon daitezkeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jotzen da euskal udalei honako hau egitea:

SINAd4408314-0fde-4ece-a845-84dec02256c2

PROPOSAMENA

Baimendutako legezko maximoaren **% 2**ko igoera orokorra onartzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, ***2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinatasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.***

6.2 artikuluan araututako % 0,5eko ordainsari-igoera gehigarri eta finkagarriari dagokionez, 2024ko KPI harmonizatuaren datuak Estatistikako Institutu Nazionalean (INE) argitaratu arte zain egon beharko da, eta geroago onartuko da igoera horren aplikazioa, Ministroen Kontseiluaren Akordioaren bidez. Akordio hori BOEn argitaratuko da, eta EUDELek unean-unean emango dizue horren berri. "

Gomendioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Ordainsarien igoera orokorra legez onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2 handiagoa izatea 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Igoera orokor hori bi alderdietan berdinak izan behar dira: langileen kopuruari dagokionez eta antzinatasunari dagokionez. Igoera 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin izan behar da. Hori guztia 2024ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 4/2023 Legearen 21 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.- Erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen zerrendaren berri ematen du:

SINAd4408314-0fde-4ece-a845-84dec02256c2

- 04/0624 tik 023/0624 arteko erabakiak, ekainaren 10ekoak, "Udaleku irekiak/udako haur txokoa 2024" programarako hezitzaileen izendapenak.
- 024/0624 erabakia, ekainaren 10ekoa, 2019 urteko ibilgailuen zergan ordaindu gabeko eta preskribaturiko errezibоen baja onartzea, guztira 2.335,89 euro.
- 025/0624 erabakia, ekainaren 12koa, 9 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina) onartuz; guztira 55.655,07 euro.
- 026/0624 erabakia, ekainaren 14koa, Olaberria 16ko jabekideei eraikinaren balkoiak eraisteko obra handi lizentzia ematea.
- 027/0624 erabakia, ekainaren 19koa, Egurtza-Moleo bidea asfaltoz zolatzeko obren esleipenerako pleguen onarpena.
- 028/0624 erabakia, ekainaren 20koa, 2025 urteko jai eguna finkatzeari buruzko erabakia.
- 029/0624 erabakia, ekainaren 25ekoa, Luis Maria Arrieta Guridiri Ormazabal Garakoa baserriko teilatuaren erretila egiteko baimena ematea.
- 030/0624 erabakia, ekainaren 25ekoa, Maria Magdalena Cortesi Zuloaga baserriko teilatuko teilak eta hodiak aldatu eta tximinia margotzeko baimena ematea.
- 031/0624 erabakia, ekainaren 26koa, 10 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina2) onartuz; guztira 147.923,37 eurokoa.
- 032/0624 erabakia, ekainaren 26koa, Zegamako jubilatu egoitza berria izango den lokala egokitzeko lanak burutzeko Iparragirre Eraikuntza Lanak, S.L. enpresak aurkeztutako Segurtasun eta Osasunari buruzko plana onartzea.
- 01/0724 erabakia, uztailaren 1ekoa, Zegamako udalaren jabetzako Zegamakomendia 2.025.1.zk.dun Zegamakomendia mendiaren ELOR HAUNDI eta OAZURTZE unadetako baso lanak sortu dituen emaitzaren baitako behin betiko likidazioa onartzea, 20.252,94 eurokoa (BEZ barne).
- 02/0724 erabakia, uztailaren 1ekoa, Miguel Encinas Menari Beruntze txiki 1ean etxeko bainugela erreformatzeko baimena ematea.
- 03/0724 erabakia, uztailaren 3koa, Maria Lourdes Ormazabal Arizkorretari Azkonieta baserriko erretila egiteko baimena ematea.
- 04/0724, uztailaren 3koa, Mugamendi SL enpresari egurra ateratzeko Anatxe herri bidea erabiltzeko baimena ematea.
- 05/0724, uztailaren 4koa, Osoko Bilkuraren ohizko batzarraldirako deialdia eginez.

SINAd4408314-0fde-4ece-a845-84dec02256c2

7.- GALDE ERANTZUNAK.

- Ainhoa Herrasti Areitio zinegotziak (EH Bildu) “Emezikl” proiektuaren berri eman du. Proiektu honen helburua emakumeak, edozein etapetan daudela ere, talde multidisziplinar batean babesa izatea da, beraien beharrak erdigunean jarrita. Horretarako ikastaro saioak egitea proposatzen dute. Finantzaketaren zati bat udalaren kontu izango litzatekeen ala ez erabaki beharko litzateke. Gaia aztertzeari irailean ekingo zaiola erabaki da.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogei minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2024Ko .....k .....

O.E./ VºBº
ALKATEAK/ EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2024.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO

EKS | CSV: **SINAd4408314-0fde-4ece-a845-84dec02256c2**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02510
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02510

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	UDALBATZARREKO AKTA
CSV/EKS:	SINAd4408314-0fde-4ece-a845-84dec02256c2

Sinatzailea 1 / Firmante 1: IKER ZUBELDIA CATARAIN - 72478431A
Data / Fecha: 2024/07/22 14:26:42

Sinatzailea 2 / Firmante 2: LIERNI ASURABARRENA ZIPITRIA - 72474562K
Data / Fecha: 2024/07/22 14:54:06